

LANA 9.1: TAULAK

Sarrera:

Tauletan datu multzoak gordetzen ditugu lerro eta zutabeetan antolatuta.

Helburua:

C lengoian taulak nola antolatzen diren eta nola maneiatzen diren ulertzea.

Egin beharrekoak:

Ondorengo ariketa egin.

Taulak landu

Autoerrepikakorra eta menua duen programa hau sortu C lengoian:

- 1- 4x5-eko taula bete. Erabiltzaileak adierazitako zenbakitik hasita eta bat gehituz, taulako gelaxka guztiak bete.
- 2- Taula pantailaratu bi dimentsiotan.
- 3- Zero lerroko balio maximoa zein da?
- 4- Bat indizea duen zutabeko zein lerroan dago balio minimoa?
- 5- Bi indizea duen lerroko batez bestekoa kalkulatu.
- 6- Hiru indizea duen zutabeko batez bestea baino txikiagoak diren taula osoko balioak pantailaratu.
- 7- Irten.

int T[4][5]

T	0	1	2	3	4
0	105	106	107	108	109
1	110	111	112	113	114
2	115	116	117	118	119
3	120	121	122	123	124

T[lerroa][zutabea]